

Aurrera Begira

2015

GAZTEEN
AURREIKUSPENEI
BURUZKO
ADIERAZLEAK



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Gazteria eta Kirol
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud
y Deportes



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud



ZER DA *AURRERA BEGIRA*?

Aurrera Begira Gazteen Euskal Behatokiak urtero burutzen duen ikerketa da, honako helburu hau izanik: Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina eta, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak jakitea.

Ikerketa honek 2015ean bere hirugarren emanaldia aurkezten du. Honen bidez gazteen egoera ebaluatzeko eta jarraitzeko tresna erraza eta sintetikoa eskaini nahi zaie bai herritarrei bai gazteriaren arloan erantzukizun politiko edota teknikoak dituzten guztiei.



ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

IKERKETAREN DISEINUA ETA EMAITZEN ANALISIA

Gazteen Euskal Behatokia.

METODOLOGIA


Kuantitatiboa, inkesta telefonikoen bidez egindakoa.

INKESTA KOPURUA

1512 inkesta 15 eta 29 urte bitarteko gazteei.

INKESTAK EGITEKO EPEA

2015ko azaroaren 11tik 24era.





GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO 10 ADIERAZLE

- 1 Egungo egoeraren balorazio indizea
- 2 Norberaren poztasun indizea
- 3 Bizitzaren alderdien balantzea
- 4 Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua
- 5 Lana aurkitzea aurreikustea
- 6 Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea
- 7 Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea
- 8 Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea
- 9 Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea
- 10 Etorkizunarekiko konfiantza indizea




1

EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA

DEFINIZIOA:

Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Egungo egoeraren balorazioak hobera egin du eta 66 puntutakoa da 0 eta 100 arteko eskalan.

2

NORBERAREN POZTASUN INDIZEA

DEFINIZIOA:

Norberaren lan, prestakuntza, etxebizitza, familia, astialdi, lagun, harreman sentimental edota sexual, osasun, diru-eskuragarritasun eta independentzia pertsonalarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Norberaren poztasun indizea oso positiboa da eta azken urtean zertxobait igo da gainera. Horrela 100 puntutik 81 lortu ditu 2015ean.

DEFINIZIOA:

Bizitzaren hamar alderdirekiko poztasun pertsonalaren eta horietako bakoitzari emandako garrantziaren arteko aldea, bi kasuetan 0tik 100era doan eskala erabilia. Aintzat hartu diren hamar alderdiak honako hauek dira: lana, prestakuntza, etxebizitza, familia, astialdia, lagunak, harreman sentimentalak edota sexualak, osasuna, diru-eskuragarritasuna eta norberaren independentzia.

Bizitzaren hainbat esparruren artean, gazteak poztako daude hauekin: familia (90 puntu), osasuna (88 puntu), lagunak (86 puntu) eta bizi diren etxebizitza (86 puntu ere bai).

Bizitzaren esparru bakoitzari emandako garrantzia-mailaren eta esparru horrek eragindako poztasun-mailaren arteko aldea ikusita, esan dezakegu 2015ean desoreka edo defizit handien norberaren independentzian dagoela, bai eta lan esparruan ere.



4

LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

DEFINIZIOA:

Langileen portzentajezko banaketa, urtebeteko epean enplegua galtzeko edo norberaren lan-baldintzek okerrera egiteko arriskuaren pertzepzioaren arabera.

Arrisku-maila altua
Enplegua galtzeko aukera asko edo nahikoa

Arrisku-maila ertaina
Lan baldintzak okertzeko aukera asko edo nahikoa


Arrisku-maila baxua
Horrelakorik gertatzeko aukera gutxi edo bat ere ez



2015ean handitu egin da lana duten gazteen artean lan hori galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arrisku-maila altua, eta % 44ra iritsi da.

DEFINIZIOA:

Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabeen ehunekoa.




Gazte langabeen artean hobetu dira lana aurkitzeko aurreikuspenak. % 71k badute urtebeteko epean enplegua izateko itxaropena.

6

PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA

DEFINIZIOA:

Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehunekoa.



Prestakuntzari lotutako lana izateko aurreikuspena ere handitu da. Beren formazioarekin bat datorren enplegua aurkitzeko itxaropena % 65era igo da ikasleen artean.

DEFINIZIOA:


Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



Atzerrira lan egitera derrigorrez (hau da, nahi gabe) emigratu beharraren aurreikuspena % 14an mantentzen da.

DEFINIZIOA:


Urtebeteko epean emantzipazio-proiektuak burutu ezin izango dituztela uste duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik ezin izango direlako irten edo bertara itzuli beharko dutelako.



la gazteen erdiak uste du urtebeteko epean ezin izango dela emantzipatu.

DEFINIZIOA:

Zailtasunei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen diren gaitasun batzuk aintzat hartuta (langilea, arduratsua, kualifikatua, parte-hartzailea, ekintzailea, idealista eta autonomoa izatea), Euskadiko gazteek gaitasunok zein mailatan dituzten iritziaren batez besteko puntuazioa 0tik 100era doan eskalan.




Gazteen gaitasunekiko konfiantza handitu da eta 100 puntutik 75 jaso ditu.

Gazteria baloratzean gazteek beraiek gehien nabarmentzen duten ezaugarria beren prestakuntza da.

DEFINIZIOA:


Norberaren egoerak, gazteenak eta Euskadirenak hurrengo 5 urteetan izango duten bilakaerari buruzko usteen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



Datozen urteetan egoera hobetzeko konfiantzak handia izaten (74 puntutakoa) jarraitzen du.



ONDORIOAK



ORAINA ONDO BALORATZEN DA

Gazteek ondo baloratzen dute egungo momentua eta gainera konfiantza handia dute etorkizunean.

HOBETU EGIN DIRA LANA AURKITZEKO AURREIKUSPENAK BAINA EZ LAN HORI MANTENTZEKOAK

Langabeen artean enplegua aurkitzeko aurreikuspenak hobetu dira, bai eta enplegua formazioari lotuta egotearenak ikasleen artean ere. Baina, bestalde, okupatuaren artean lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskua handitu da. Gauzak horrela gutxi dira atzerrira lan egitera derrigorrez emigratu beharko dutela uste dutenak.

EMANTZIPATZEKO AURREIKUSPENAK EZ DIRA HOBETU

Gazteen erdiak uste du ezin izango dituela bere emantzipazio-proiektuak aurrera eraman urtebeteko epean. Adierazle hau iazko maila berean mantentzen da.

GAZTEEK KONFIANTZA DUTE BERAIENGAN

Nahiz eta zailtasunak izan, Euskadiko gazteak pozik daude beren bizitzarekin eta konfiantza dute helduaroarako trantsizioan dauden oztopoei aurre egiteko dituzten gaitasunetan.



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Gazteria eta Kirol
Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud
y Deportes



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud